

“SALBATORE MITXELENA” AUZO ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

“Salbatore Mitxelena” Auzo Elkartearen Batzar Orokorrari hasiera ematen zaio, 2024ko martxoaren 21ean, 18:30ean, bigarren deialdian, Elkartearen lokalean, bertan 25 bizilagun direla eta ondorengo gai zerrenda azaltzen da:

GAI-ZERRENDA

- 1.- 2023. URTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN KONTUAK ETA KUDEAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.
- 2.- 2024. URTEKO AURREKONTUA ETA KUOTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.
- 3.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ELKARTEAREN LOKALAREN (35. zk.) JABETZAREN ERREKLAMAZIOAREN PROZEDURA JUDIZIALERAKO ORDAINSARIEN AURREKONTUA, ETA ELKARTEKO LEHENDAKARIARI BEHARREZKO IZAPIDEAK EGITEKO AHALMENA EMATEA
- 4.- EGITEN ARI DIREN OBREN EGOERA (BIDEGORRIA, GERALEKUA), ETA EGIN BEHARREKO HOBEKUNTZAK, AUZOKO MANTENTZE-LAN OROKORRAK.
- 5.- TRENAK ERAGINDAKO UKIPENEN AURREAN EGINDAKO GESTIOEN EGOERA.
- 6.- UDAL DIRU-LAGUNTZAREN BARRUAN EGIN BEHARREKO EKINTZEN IRADOKIZUNAK.
- 7.- GALDE-ESKEAK.

Parte-hartzaileak

PARTE-HARTZAILEAK				
ZKIA.	IZEN ABIZENAK	ESK. ZKIA.	SOLAIRUA	ATEA
1	Enrike Egaña	1	4º	B
2	Txumai Iturria	1	3ª	A
3	Gabriel Iribar	3	3ª	D
4	Baltasar Gago	9	3ª	B
5	Milagros Bastida	9	6	D
6	Mikel Urdangarin	13	1ª	D
7	Jose Cortinat	27	4ª	C
8	Mikel Artetxe	27	6ª	B
9	Marian García	33	1ª	A
10	Juan Malmasoro	33	4ª	A
11	Encarna Zendoia	39	1ª	D
12	Salbador Unzueta	41	2ª	D
13	Ernesto Galletero	41	3º	D
14	Mertxe Goikoetxea	55	2ª	A
15	Patxi Aldasoro	57	3ª	D
16	Rosa Aizpuru	65	3ª	I
17	Nahiara Irureta Azkune	73	4ª	D
18	Joxe Garmendia	81	3ª	D
19	Valentin Larrañaga	83	1ª	B
20	Itxaso Manzisidor	83	3ª	B
21	Juani Goikoetxea	33	2ª	C
22	Marilu Eizagirre	85	2ª	D

23	Kontxi Aristi	85	4ª	D
24	Joxe Mari Beloki	39	2ª	D
25	Jesus Fraca	71	3ª	B

Bertaratutakoei eskerrak eman ondoren, Lehendakari jaunak gai-zerrenda aurkeztu du.

1.- 2023. URTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN KONTUAK ETA KUDEAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Puntu horri ekin aurretik, lehendakariak argitu du elkarteko kide izateko bazkide-kuota ordainduta eduki behar dela.

2023an egindako jardueren berri eman du.

Jarduerak egiteko Udalak emandako diru-laguntzaren berri eman du. Onartutako diru-laguntza 3.210 €-koa da, baina abenduaren erdialdera arte ez zen jaso; beraz, ezin izan da guztia gastatu. Onartutako 3.210 €-etatik 1.605 € sartu ziguten eta abenduan egin ziren jarduerak, eta ez zen gehiago egiteko denborarik izan. 2.056,27 € gastatu dira, eta diferentzia Udalak sartzea espero da.

Udalak ematen duen dirua ikastaroak, hitzaldiak, kultur jarduerak, etab. bezalako jardueretan baino ezin da erabili. Ezin da elkartearen gastu arruntak ordaintzeko erabili.

Abenduan jarduera hauek egin ziren:

- Oihalezko poltsak egiteko ikastaroa (2 egun)
- Bertsolari-saioa Ainhoa eta Oihanerekin
- Haurrentzako sormen-tailerra (2 egun)

Gastu eta diru-sarrerari dagokienez, bi zati bereizi dira: elkartearen funtzionamendua eta Udalak diruz lagundutako jarduerak.

Diru-sarrerak eta gastuak honela gelditu dira:

KONTZEPTUA	SARRERAK	KONTZEPTUA	IRTEERAK
Kuotak	3.720,00 €	Funtzionamentu gastuak	1.508,51 €
		Web orria	833,79 €
		Zarauzko Udala (IBI)	177,62 €
		Segurua	160,34 €
		Bankuko gastuak	125,37 €
		Izenpe	95,50 €
		Zaborrak	62,39 €
		Papeleria	53,50 €
DENERA FUNTZIONAMENDUA	2.211,49 €		

KONTZEPTUA	SARRERAK	KONTZEPTUA	IRTEERAK
Zarauzko Udala	1.605,00 €	Ekintzak	2.056,27 €
		Poltsak egiteko ikastaroa	244,65 €
		Bertso saioa	300,00 €
		Birziklatuz sortu tailerra	510,00 €
		Elkartearen web orria eta domeinua	266,74 €
		Papeleria	177,31 €
		Ordenagailua (Berregoikituta)	359,37 €
		Imprimagailua	62,99 €
		Proiektzio pantaila	59,99 €
		Garbiketako gailuak	75,22 €
DENERA EKINTZAK			451,27 €
Zarauzko Udala (jasotzeko)	451,27 €		
DENERA EKINTZAK	2.056,27 €		2.056,27 €

Bozketa egin ondoren, aho batez onartzen da.

2.- 2024. URTEKO AURREKONTUA ETA KUOTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aurreko atalean esan bezala, 3.210 €-ko diru-laguntza lortu da Udaletik, jarduerak egiteko. Hori dela eta, 2024rako aurrekontuak bi zatitan aurkeztu dira: bata, Elkartearen funtzionamenduari buruzkoa, eta bestea, diruz lagundu daitezkeen jarduerari buruzkoa.

Aurrekontua honako hau da:

SALBATORE MITXELENA ELKARTEA			
2024 AURREKONTUA			
GASTUAK		SARRERAK	
Funtzionamentu gastuak	4.201,00 €	Kuotak	4.200,00 €
IBI	185,00 €		
Zaborrak	66,00 €		
Segurua	170,00 €		
Bankuko gastuak	230,00 €		
Web orria	350,00 €		
Lokalaren prozesu judiziala	3.000,00 €		
Papeleria	200,00 €		
DENERA GASTUAK	4.201,00 €	DENERA SARRERAK	4.200,00 €

2024 EKINTZA AURREKONTUA			
GASTUAK		SARRERAK	
Urteko ekintzak	3.210,00 €	Zarauzko Udala	3.210,00 €
Hitzaldiak	1.400,00 €		
Ikastaroak	1.200,00 €		
Bertso saioa	410,00 €		
Kartelak	200,00 €		
DENERA GASTUAK	3.210,00 €	DENERA SARRERAK	3.210,00 €

Bozketa egin ondoren, aho batez onartzen da, etxebizitza bakoitzeko 10 euroko kuotarekin batera.

Kuota hori behin ordaintzen ahalko da, atari bakoitzeko administratzaileen bidez, edo bestela, banaka.

2024ko ekainaren 1a baino lehen sartu beharko da.

3.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ELKARTEAREN LOKALAREN (35. zk.) JABETZAREN ERREKLAMAZIOAREN PROZEDURA JUDIZIALERAKO ORDAINSARIEN AURREKONTUA, ETA ELKARTEKO LEHENDAKARIARI BEHARREZKO IZAPIDEAK EGITEKO AHALMENA EMATEA.

Ustez Elkartearena den Mitxelena 35eko lokalaren egoeren berri ematen da. Legez linbo batean dago, Zarauzko “Asociación de propietarios del Polígono Zelai” elkartearen izenean eskrituratuta baitago. Elkarte horrek duela urte asko utzi zion funtzionatzeari, eta beti pentsatu izan da Salbatore Mitxelena Auzo Elkarte izan dela ondorengoa. Duela urte askotik ari gara lokalaren gastu guztiak ordaintzen (OHZ, eraikineko obra-gastuen zati proportzionala), baina lokalarekin zerbait egiteko orduan (adibidez, lokala Udalar lagatzea, berritu eta erabilera eman diezaion) oztopo bat aurkitzen dugu: ez dago eskrituratuta auzo-elkartearen izenean, jabeen elkartearen izenean baizik.

Hainbat kudeaketa egin dira bai Jabetza Erregistroan bai Notariotzarekin, baina guztietan erantzun bera lortu dugu.

Lokalaren jabetza legala eskuratzeko (berez bi dira), “Usukapioa” dago. Forma juridiko honen bidez, ondasun bat 30 urtez baino gehiagoz gure jabetzakoa balitz bezala erabili badegu, modu jarraituan eta fede onez, jabetza eskuratu daiteke. Horretarako, abokatu eta prokuradoreen artean 3.000 €inguruko aurrekontua duen prozedura judizial bati ekin behar zaio.

Zarauzko 0756 eta 10758 zk. finken (Mitxelena kalea, 35) jabetza erreklamatzeko ekintza judizialei ekiteko, abokatu eta prokuradorea kontratatzea proposatzen da, eta presidenteari ahalmena ematea beraien aldeko botereak eman ditzan.

Bozketa egin ondoren, aho batez onartzen da.

4.- EGITEN ARI DIREN OBREN EGOERA (BIDEGORRIA, GERALEKUA), ETA EGIN BEHARREKO HOBEKUNTZAK, AUZOKO MANTENTZE-LAN OROKORRAK.

Lehendakari jaunak aipatu gaiei buruz egin diren kudeaketen berri ematen du.

Bidegorria: Elkarreak, bidea partekatua izateko eskatu dio Udalari, hala nola bidegorria eta oinezkoena. Horretarako, 1 - 1,1 metroko zabalera gorde dadila eskatzen da, bizikletentzako bidera sartzeko segurtasun-eremu gisa, eta oinezkoentzako lehentasuna izan dezala. Lehen margotutako seinaleak alde batera utzita, ibilbidearen bi aldeetan kartel adierazle bat jartzeko proposamena egin da, oinezkoen eta txirrindularien artean partekatutako tartea dela zehaztuz.

5.- TRENAK ERAGINDAKO UKIPENEN AURREAN EGINDAKO GESTIOEN EGOERA.

Mitxelenako auzo elkartearen izenean, alkateari eskatu zitzaion auzoaren izenean ETSri idazki bat bidal ziezaion, gure ustez eskaera hori justifikatzen duten agiriekin batera. Bertan, zarata-mapa berri bat egiteko eskatzen diegu, Mitxelena Kanean arreta jarritz, eta behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko.

6.- UDAL DIRU-LAGUNTZAREN BARRUAN EGIN BEHARREKO EKINTZEN IRADOKIZUNAK.

Diruz lagundu daitezkeen jardueren tipologia azaltzen da. Orain arte egindakoak aipatu dira. Horietako batzuk berrargitaratu egingo dira (haurrentzako eskulan-tailerrak, helduentzako josteta-tailerrak, gaikako hitzaldiak, bertsolariak...), eta aurreko urtean denbora faltagatik gauzatu ezin izan ziren ideia batzuk (haurrentzako xake-lehiaketa, haurrentzako pintura-lehiaketa...). Auzotarrei eskatzen zaie elkarteari eman diezazkioten ideiak.

7.- GALDE-ESKEAK.

Beste gairik ez zegoenez, bilera 20:30ean amaitzen da.

LEHENDAKARIA
JESÚS FRACA CASAS



IDAZKARIA
M. JUANA GOIKOETXEA MANTEROLA

